Eskuliburu honetan, edozein sukaldetan aurki ditzakegun bazterkinak erabiltzeko tresnak eman, eta produktu horiek ikusteko era aldatu nahi dugu. Gure helburua ikuspegi desberdin eta jasangarria eskaintzea da; hala, gure sukaldeetako bazterkinak edozein errezetatan erabiltzeko osagaitzat hartzeko. Ogi-apurrak, azenario-azalak eta antzeko hondar arruntak ulertzeko ikusmoldea aldatu nahi dugu, hondar gisa ikusteari utzi, eta egosteko, hartitzeko edo deshidratatzeko teknikez baliatuz, produktu gastronomikoak sortzeko osagai baliotsu gisa ikusten hasteko.



*Zergatik erabili
bazterkinak?*

Eskuliburu hau ulertzeko, osagaiok bazterkin modura ikusteari utzi behar diogu, eta produktu edota azpiproduktu izango balira bezala hartu; beste edozer produktu bezala erabiltzeko modukoak direla ikusi behar dugu, ikusmolde organoleptiko berarekin, alegia.

Horretarako, «hondakin» deitzeari utzi, eta «lehengai» deitu beharko diegu berriro ere. Eskuliburu hau praktikara eramateko, ezagutza, sormena eta zenbait tresna besterik ez da behar.

«Bazterkinen» osaketari erreparatuz gero, kontuan izan behar dugu karbohidratoak, proteinak eta lipidoak direla, eta hainbat errezeta prestatzeko balio digutela.

Funtsezkoa da jakitea, hartzidura eta halako teknika delikatuak aplikatzeko, bazterkinak jateko egoera onean egon behar direla. Bazterkinak ez badaude jateko moduan, hartzitzeko ere dira egoera onean egongo! Ez eta deshidratatzeko, infusio bat egiteko edo beste edozein prozesu egiteko ere. Beste produktu batzuk aztertzeko erabiltzen ditugun irizpide berak erabili behar ditugu azpiproduktu edo bazterkinetarako.



Teknika praktikoak

Jarraian, xehe-xehe azalduko dizkizuegu azpiproduktuak berrerabiliz produktu gastronomikoak sortzeko teknika nagusiak.

Hartzidura

«Bakterkinen» proteinak eta karbohidratoak erabili ahal izateko, hartzidura, zalantzarik gabe, funtsezko eraldaketa-tresna da.

F


ruta- eta barazki-azalak edari alkoholduen eta ozpin bihurtzeko, ezinbesteko tresna da alkohola eta ozpinaren hartidura. Azenario, apio, arbi, patata, sagar, eta abarren azalak erabiliz, infusio bat egin, alkohol neutroa gehitu eta, ozpin-bakterioek alkohola azido azetiko bihur dezaten, alkohola oxidatuz gero, balio gastronomiko handiko ozpinak lor litezke, «bazterkinak» erabilia.

Badago beste edari hartzitu konplexuago bat: kombucha. Bakterio eta legamien kolonia sinbiotiko bat da, zeinak, azukrea hartzitu, eta bakterioz eta legamiaz beteriko edari hartzitua sortzen duen. Zapore garratza eta apur bat gasifikatua du. Aurrerago emango dugu munduan gero eta ezagunago den kombucharen inguruko xehetasun gehiago, kafe- edo sagar-hondarren antzerako «bazterkinen» adibideak erabiliz.

«Kojia» beste hartidura-teknika bat da, proteina-hartidura,

kasu honetan. Japoniako teknika tradizional bat da. *Aspergillus oryzae* onddoa erabiltzen da, karbohidratoak eta proteinak proteasa eta amilasa bihurtzeko. Ondorioz, mizelio bat lortzen da hazkuntza-substratuan (eskuarki arroza edo garagarra).

Teknika hori bera erabiltzen dugu garagar-kojian sortutako proteasekin arrainen edo haragien proteinak apurtzeko, eta, hala, balio gastronomiko handiko arrain-saltsa lortzeko. Ogi zaharrarekin egindako saltsa bat lortzeko ere erabil daiteke, *Aspergillus oryzae* onddoaren mizelioa zuzenean ogiaren gainean hazita. Horrela, ogiaren karbohidrato guztiak amilasa bihurtuko dira, eta horiek, gero, ogiaren karbohidrato guztiak hautsiko dituzte. Emaizta soja-saltsaren antzeko saltsa hartzitu bat da; hala, ogi zaharrari berriz balioa ematen zaio. Izan ere, hura, kasurik onenean, ogi birrindu modura erabili ohi da.



Nola egin Kojia

urratsez urrats

- 1** Eduki produktua uretan 12 orduz (arroza, garagarra, ogia...).
- 2** Kozinatu lurrinetan (100 °C) 90 minutuz. Al dente geratu behar du.
- 3** Hoztu produktua 35 °C-ra iritsi arte.
- 4** Koji-kina erantsi, modu erregularrean hautseztatuta.
- 5** Alkoholez desinfektatutako latexezko eskularruekin, mugitu eta apurtu zereal-metaketa guztiak; ale guztiak erabat bereizita eta koji-kina erabat banatuta utzi behar dira.
- 6** Zabaldtu gastronorm azpil batean, eta estali zapi heze desinfektatu batekin, 2 cm-ko tartea utzita.
- 7** T+0h: Sartu 30 °C-ko temperatura kontrolatua duen ganbera batean, eta kontrolatu barne-temperatura.
- 8** T+18h: Nahasi kojia, aireztatzeko, eta esporak banatzen direla ziurtatzeko. Fruta-usain gozoa izan behar du (fruta exotikoa), eta zapi heze batekin estali behar da. Ganberan sartu berriz (30 °C-tan); kojia 25-30 °C artean mantendu beharko da (peptidasak desnaturalizatzeko).
- 9** T+24h: Mugitu kojia berriro, eta egin bi zulo handi eskuekin (kojiaren temperatura apaltzeko). Ondoren, eraman kojia berriro ganberara, zapi heze batekin estalita. Kontrol-puntu kritikoa da, kojiaren temperatura igotzen hasten baita.
- 10** T+30: Mugitu kojia azkenekoz, eta, berriro ere, egin bi zulo. Estali kojia zapi hezearekin, eta eraman bueltan ganberara; % 95eko hezetasun erlatiboa izan beharko luke gutxi-gorabehera.
- 11** T+36: *A. oryzae* onddoaren mizelioak erabat estalita eduki beharko lituzke aleak, eta gainazal zuriaren bidez erabat lotuta egon beharko lukete horiek.

Deshidratazioa

Deshidratazioa da elikagaiak kontserbatzeko teknikarik zaharrenetako bat; elikagaiei eta prestakinei izan ohi duten uraren zati handiago edo txikiago bat kentzean datza.



D

eshidratazioak hainbat helburu ditu: produktuak luzaroko kontserbatzea, pisua eta, batzuetan, bolumena murriztea (garraiorako eta biltegiratzeko neurri egokia).

Infusio, irin, krokante eta tankerakoen oinarria da, eta hainbat eratan erabil daiteke.

Bazterkinik ohikoenak

Establezimenduaren ezaugarrien arabera, bazterkinak beti izango dira desberdinak, eta lotura zuzena izango dute establezimenduaren eskaintza gastronomikoarekin, produktu bakoitzaren sasoia kontuan hartuz.

Dena den, honako bost kasu hauek eskuarki bazter guztietan aurkitzen dira, eta, sasoiko produktuak edozein izanik ere, beti egin ahal izango dira prestakinak produktu horiek oinarri hartuta. Garrantzitsua da, konbinazioei dagokienez, eman ditzaketen aukerak kontuan izatea osagaiak hautatzerakoan, baina eskuliburuan erakusten diren prestaketa-parametroen barruan betiere; hori aintzat hartuta, parametrooi jarraituta prestatu behar dira errezetak.



Barazkiak

Barazkiez hitz egiten dugunean, barazkitzat hartzen ditugun landare guztiez ari gara, hala nola apioa, tipula, patatak, baratxuria, tomatea, kuia eta abar.

Erabiltzeko zatiak

Barazki-azalak: Pataten, kuien eta tankera horretako barazkien azalek zaporea indartzeko balio dute, batez ere gorritu edota deshidratatu ostean, eta saldak, ozpinak edota infusioak egiteko erabiltzen dira.

Haziak: Kalabazaren eta halako barazkien haziak bota egin ohi dira, baina horiek berrerabiltzeko aukera ugari daude: erreta, zurituta, hartzidura laktikoa aplikatuta edo ozpinak egiteko erabilia.

Errezetak

Barazki-azalen ozpina

Osagaiak

2 l ur
0,5 l alkohol (40 °)
300 g barazki-azal (azenarioa, tipula, baratxuria...)

Materialak

Beirazko edo elikagaietarako plastikozko pitxerra
Zapia
Banda elastikoa
Arrainontzi-ponpa

Metodoa

Garbitu barazki-azalak, eta lehortu labean 30 minutuz, 120 °C-tan. Lortu nahi den zaporearen arabera, deshidratatu direnean atera ditzakegu labetik, edo txigortuta egon arte utzi.

Nahasi barazkiak urarekin, eta irakin, utzi egoten 20 minutuz; hoztu 30 °C-ra gutxienez, iragazi, eta erantsi alkohola. Puntu horretan, zapore-indartzaile bat erants daiteke; esate baterako, barazki-azal txigortu gehiago.

Ipini arrainontzi-ponparen mahuka, estali zapiarekin, eta finkatu banda elastikoarekin, ponparen mahukak arazorik gabe funtzionatzen duela ziurtatuta.

Utzi oxigenatzen zazpi egunez. Denbora horretan, bakterio azetikoek alkohola prozesatuko dute, eta azido azetiko bihurtuko. Garrantzitsua da kontuan izatea alkohol-bolumena: zenbat eta handiagoa izan, orduan eta garratzagoa geratuko da ozpina. Hortaz, garrantzitsua da oreka topatzea barazki-azal gozoen eta aromatikoaren artean. Giro-tenperatura, 20 °C inguru.

Garrantzitsua da kontuan izatea aukeratutako barazkiek eragin zuzena izango dutela bai zaporean, bai aroman. Gomendatzen dugu barazki gozoen proportzio handiagoa erabiltzea (azenarioa, mihilua edota kalabaza), eta baratxuriaren edota tipularen azalak bigarren mailako zapore osagarri modura uztea.

Fruta-azalekin ere primeran geratzen da.



Errezetak

Barazki-azalen infusioa

Osagaiak

200 g barazki-azal
1 l ur iragazi

Materialak

Teontzi iragazkiduna

Metodoa

Garbitu barazki-azalak, deshidratatu 80 °C-tan ordubetez, eta txigortu 140 °C-tan 15 minutuz.

Deshidratatu eta txigortu ostean, zati txikiagoetan moztu daitezke, infusioak errazago prestatzeko.

Produktu hori beste edozein infusio bezala eduki daiteke gordeta, eta beti nahas daiteke beste osagai batzuekin, adibidez: Kamamila + azenario-azalak.



Errezetak

Kalabaza-mamia eta -haziak, lakto-hartzituta

Osagaiak

1 kg kalabaza-mami, haziekin
20 g gatz

Materialak

Hutsean gordetzeko poltsa edo ontzi hermetikoa

Metodoa

Gorde kalabaza-haziak mamiarekin batera, nahastu ondo gatzarekin, eta zigilatu hutsean ixteko poltsa batean.

Era berean, ontzi hermetiko batean ipin daiteke, beti ziurtatuta mamia ondo presionatuta dagoela, likido guztiak gainazala estal dezan eta mamiak ez dezan kontakturik izan oxigenoarekin.

Utzi 15-20 °C-ko giro-temperaturan gutxienez egun batez, eta gero gorde hilabete hozkailuan, 4 °C-tan. Zenbat eta denbora gehiago utzi, orduan eta garratzago jarriko da, sortuko den aziko laktikoaren eraginez. Nahi dugun azidotasan-puntura iristean, hozkailuan gordetzea gomendatzen dugu, hartzidura murrizteko eta gehiago ez azidotzeko.

Produktu hau erabiltzeko bi modu daude. Batetik, iragazi, eta likidoa beste ozpinetako batzuk prestatzeko erabil daiteke, edota saldei eta bestelako prestakinei zaporea emateko. Bestela, dena prozesatu eta iragazita, pasta bat lor daiteke.

Zaporeak ozpinetako luzokerrak edo sauerkrauta gogoratuko dizkigu.

Teknika horrek berak emaitza bikainak ematen ditu limoi- edota lima-azalekin, azenario-azalekin edota tomate-hondarrekin.







Frutak

Fruta oso ohiko bazterkina da edozer jarduera gastronomikotan, eta, horregatik, lehengai garrantzitsua da produktuak berrerabiltzeko garaian.

Erabiltzeko zatiak

Fruta-azalak: Fruta-azalak pektina- eta azukre-iturri garrantzitsuak dira, eta oso erabilgarriak izan daitezke produktu gastronomikoak sortzeko.

Haziak: Fruten haziak edo zuztarrak zaporea emateko lehengai bikaina dira. Fruta gehienek hezurrek, hala nola mertxika, aran, abrikoten hezurrek, arbendol mikatzaren antzeko zapore indartsua izaten dute, eta edozer prestakinetan erabil litezke. Era berean, sagarren edota udareen zuztarrak jarabeak edota konpotak egiteko erabil daitezke.

Mamiak: Fruta-zukuak egindakoan hondakin modura gertatzen diren fruta-mamiak azukre- eta zuntz-iturri dira, eta oso baliagarriak izan daitezke osagai modura.

Errezetak

Mertxika-hezurren izozkia

Osagaiak

100 g mertxika-hezur
1 l esne oso
175 g esnegain
42 g esne-hauts gaingabetu
79 g destrosa
50 g sakarosa
7 g neutro krema-egonkortzaile
580 g mertxika-hezurren esne
67 g glukosa atomizatu

Materialak

Elikagaien prozesagailua
Izozki-mantekagailua

Metodoa

Prozesatu mertxika-hezurak esne osoarekin, zigilatu hutsean, eta kozinatu 60 °C-tan, 12 orduz. Iragazi, eta hoztu.

Nahastu osagai guztiak (neutro krema-egonkortzailea eta azukrearen erdia izan ezik), batu guztia eltze batean, eta eraman 40 °C-ra; ondoren, gainerako azukrea erantsi aurrez neutro krema-egonkortzaile guztiarekin nahastuta, eta berotu 85 °C-ra; prozesatu emulSIONatzeko, gorde hotzean gutxienez 6 orduz, eta mantekatu.

Errezeta hau bera aranen, mertxiken edota abrikoten hezurrekin ere egin daiteke. Edonola ere, kontu izan hezurrek garbi eta lehor egon behar dutela beti.

Errezetak

Fruta-hezurren "Amaretto"-a

Osagaiak

100 g Fruta-hezur (Aran, mertxika, gerezi edota abrikota)

1 l Vodka (36% alc)

100 g Azukre

100 g Ur

100 g Fruta-hezur (botilaratua gordetzeko)

Materialak

Elikagaien prozesagailua

Metodoa

Fruta-hezurak vodkarekin prozesatu eta hozkailuan beratzen utzi hilabete.

Ura eta azukrea nahastu, almibar bat egin eta hoztu. Alkoholaren nahasketa iragazi eta almibarrarekin nahastu.

Hezur oso pare batekin botilaratu eta giro-tenperaturan beratzen utzi 2 astez gutxienez.

Hezur nahasketaren arabera zaporea pixka bat aldatuko du.

Nahi izanez gero esnegaina edo esne kondentsatua gehitu dakiok. Honek bere balio-bizitza murriztuko luke eta hozkailuan mantendu beharko litzateke.

Errezetak

Sagar-hondarrekin egindako kombucha

Osagaiak

100 g sagar-hondar deshidratatu
1 l ur
120 g azukre
120 g kombucha heldu
Kombucha SCOBYa

Materialak

Aho zabaleko pitxerra
Estaltzeko zapia

Metodoa

Hartu sagarraren hondarrak (azalak, zurtoinak, zuztarrak, hostoak eta abar). Deshidratatu 100 °C-tan bi orduz, harik eta erabat deshidratatu arte.

Egin infusioa 80 °C-tan 15 minutuz, iragazi, eta erantsi azukrea. Garrantzitsua da likidoa 10-15 ° Brix artean egotea. Utzi hozten, eta erantsi kombucha heldua eta kombucha-ama; garrantzitsua da kombucha heldua eranstea hasierako pH-a jaisteko eta ziurtatzeko ez dela beste legamiarik edota mikroorganismorik sortuko.

Ontzi batean ipini, zapiarekin estalita. Garrantzitsua da nahasketak oxigenoa izatea, baina zapiak intsektuei kanpoan eutsiko die.

Giro-tenperaturan eduki daiteke zazpi egunez (20-22 °C). Denbora erlatiboa izango da, likidoan lortu nahi dugun azidotasunaren arabera; hilabete ere utz dezakegu azidotzen, eta ozpina lortu kombuchatik abiatuta.

Ontziratu, eta bigarren hartitze bat ere egin daiteke botilan, kombucha karbonatua lortzeko.






Arrainak

Arrainaren hezurak, buruak eta gainerako hondarrak saldak eta zopak egiteko erabili izan dira; horixe izan da arrainaren bazterkinak aprobetxatzeko modu tradizionala. Hemen, arrain-hondarrekin presta daitezkeen beste teknika eta elaborazio batzuk azalduko ditugu. Oinarrizko errezeta hauek guztiak itsasoko beste produktu batzuekin ere egin daitezke (ganbak, txipiroiak, txibiak eta abar).

- ! *FUNTSEZKOA da hondarrak oso freskoak izatea; jateko moduan ez badaude, hartzitzeko moduan ere ez dira egongo.*



Erabiltzeko zatiak

Buruak: Arrain-buruak oso baliagarriak dira arrain-saltsa hartzituak egiteko, baita arrain-zopa egiteko ere.

Hezurak: Hezurak, buruak bezalaxe, primerakoak dira garuma eta halako saltsa hartzituak prestatzeko.

Azalak eta ezkatok: Arrainaren azalak nahikotxo erabiltzen dira txintxortak egiteko: prestatu, deshidratatu, eta frijitu egiten dira, eta azal puztua eta kurruskatzailea lortzen da. Ezkatak gisa horretan erabiltzea ere nahiko zabaldua dago, azalaren teknika berarekin prestatuta. Arraina zein den, denbora gehiago edo gutxiago kozinatu beharko da. Batzuetan, posible da gordinik daudela ere prestatzea, frijitu besterik behar izan gabe, eta ezkata oso kurruskatzaileak pixka bat puztuak lortzea.

Errezetak

Arrain-saltsa hartzitua

Osagaiak

1 kg proteina (arrain edo txapiroien hondarrak, hesteak, buruak)
225 g garagar-koji
300 g ur iragazi
240 g gatz

Materialak

Elikagaietarako ontzia
Plastikozko filma
Pisua

Metodoa

Prozesatu eta txikitu proteina-hondarrak gatzarekin, prozesatu kojiarekin eta urarekin.

Ipini guztia elikagaietarako ontzian; jarri gainetik plastikozko filma, nahasketa ukitzen duela, airearekin zuzeneko kontaktuan egon ez dadin.

Eduki hiru hilabete 60 °C-tan; oso garrantzitsua da tenperatura kontrolatuta edukitzea.

Prestakina faseka banatzen hasiko da: solidoak, likidoa eta koipea. Likidoaren kolorea marroi gorrixka izango da, eta solidoena, marroi-laranja. Prozesuaren amaieran, arrain-usain txigortu eta karamelizatuarena izan beharko luke, gazta parmesano onduaren ukitu txiki batekin.

Zapia erabiliz, iragazi ukitu gabe. Eragin likido zeharrargiari lehen ateraldian. Gero, zapaldu nahasketa, eta aurrekoa bezain zapoetsua den likido bat lortuko duzu, baina askoz arreagoa.

Prozesu hori bera beste edozer proteinarekin egin daiteke.





Errezetak

Ezkata kurruskatzaileak

Osagaiak

100 g arrain-ekzata
1 l ekilore-olio
Gatza

Materialak

Deshidratatzeko makina


Metodoa

Utzi ezkatatik % 10eko gatzunetan, garbitu ur ugarirekin, eta kozinatu 80 °C-tan hiru orduz lurrun-labe batean.

Garbitu ur hotzarekin, eta deshidratatu 80 °C-tan ordubetez edota erabat lehortzen diren arte. Utzi egun batez giro-temperaturan.

Frijitu oliotan (190 °C-tan) segundo batzuez, harik eta burbuilak egiteari utzi arte bakarrik. Ipini paper xurgatzailearen gainean, ongailua gehitu, eta zerbitzatu.

Prozesu hori desberdina izaten da arrain batetik bestera; batzuek denbora gehiago behar izaten dute ezkatatik egosteko besteek baino.







Haragia

Hainbat animaliaien haragia hartuko dugu kontuan, hala nola behikia, txerrikoa, ardikia edota oilaskoa. Erabilera eta parametro orokor hauek aurreko produktu guztietarako balio dute, haragi mota bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta betiere. Tradizionalki salda egiteko bakarrik erabiltzen dira batzuk; arrain-hondarrak, adibidez.

Erabiltzeko zatiak

Haragi-hondarrak: Haragi-hondarrak, kolagenoak edota kartilagoak proteina-iturri modura erabil daitezke garuma eta halako saltsa hartzituak egiteko.

Hezurak: Hezurrekin, saldatarako erabili ostean, ikatza ere egin daiteke, pirolisi izeneko prozesuaren bidez. Hezur horiek 500 °C-ra ipini, eta materia organikoaren deskonposizio kimikoa lortuko dugu, temperatura altuetan oxigenorik gabe berotzearen ondorioz karbonizazioa eraginda.

Hezur-ikatz hori ikatz arruntak bezala erabil daiteke, eta beste ikatz begetal batzuek baino iraupen eta temperatura handiagoa izango ditu.

Errezetak

Haragi garuma

Osagaiak

440 g haragi-hondar (barrukoak izan litezke, edota edozer haragi)

100 g koji

350 g ur

110 g gatz

Materialak

Elikagaietarako ontzia

Plastikozko filma

Metodoa

Procesar los despuentes de carne primero con la sal y luego, proProzesatu haragi-hondarrak gatzarekin, eta, ondoren, koji freskoa prozesatu gatzarekin eta urarekin.

Ipini guztia elikagai-ontzian; jarri gainetik plastikozko filma, nahasketa ukitzen duela, airearekin zuzeneko kontaktuan egon ez dadin.

Eduki hiru hilabetez 60 °C-tan; oso garrantzitsua da tenperatura kontrolatuta edukitzea.

Prestakina faseka banatzen hasiko da: solidoak, likidoa eta koipea. Likidoaren kolorea marroi gorrixka izango da, eta solidoena, marroi-laranja. Prozesuaren amaieran, usain txigortu eta karamelizatua izan beharko luke, gazta parmesano onduaren ukitu txiki batekin.

Zapia erabiliz, iragazi ukitu gabe. Eragin likido zeharrargiari lehen ateraldian eta, ondoren, zapaldu nahasketa, aurrekoa bezain zapoetsua baina askoz arrea den likido bat lortzeko.

Oso garrantzitsua da hondarrak oso fresko egotea.

Errezetak

Hezur-ikatz

Osagaiak

Hezurrak (salda egin ostekoak ere izan litezke)

Materialak

Pirolisi-labea

Metodoa

Garrantzitsua da hezur gogorak izatea, eta ez kartilagoa; hezurrek garbi egon behar dute prozesua hasi aurretik, koipe eta kolageno erantsirik gabe.

Ipini hezurrak pirolisi-labean, eta eduki 500 °C-tan bi orduz.

Azken emaitza bezala, erabat ikaztutako hezurrak izango ditugu.

Edozer produktu erretzeko ikatz bezala erabil daiteke.

Ogia

Ogi-hondarrak erabiltzerakoan, kontuan izan behar da zer motatakoa den ogia. Egokia izango litzateke, ogi motak bereizi, eta ikustea zehatz-mehatz zer konposizio duen bakoitzak. Ez sailkatu ogi-produktu guztiak «ogi»aren kategoria lausoan, eta kontuan izan zer osagai dituen bakoitzak (fruitu lehorrak, espeziak, legamia artifizialak, etab.). Horrek guztiak eragina izango du azken produktuan, eta kontuan izan behar dugu zertarako erabili nahi dugun.

Errezetak

Ogi-pasta hartzitua (misoa)

Osagaiak

2 kg ogi-koji
3 kg ogi-hondar txigortu
1 l ur iragazi
250 g gatz (% 4)

Materialak

Elikagaietarako ontzia
Plastikozko filma

Metodoa

Ogi-kojia: Ogi-hondarrak hartu —egokiena ore ama edo ogi zuria erabiltzea da—, eta azala kenduko diegu; kubo handitan moztuko dugu, eta % 80ko lurrunetan prestatu 20 minutuz. Hozten utziko dugu, 35 °C-ra iritsi arte. *Aspergillus oryzae* esporak inokulatuko dizkiogu (2 g/kg), eta koji arrunt bat izango balitz bezala jarraitu. Ondoren, 31 °C-tan utziko dugu 30 orduz.

Hartu 3 kg ogi-hondar, azal eta guzti; txigortu, harik eta gorritu arte, eta prozesatu. Nahasi osagai guztiekin, eta prozesatu.

Zapaldu indarrez edukiontzi batean, eta estali gainetik plastikozko filmarekin.

Utzi 40 °C-tan bi hilabetez.

Oso garrantzitsua da gainean pisu bat ipintzea, igo ez dadin; izan ere, hartzidura-prozesuan CO₂ askatuko da, eta baliteke nahasketa ontzitik irtetea.

Kafe-hondarrak

Kafea egin ostean geratzen diren hondarrak oso bazterkin ugariak dira industriaren barruan, batez ere kafetegietan. Hondar horiek asko erabili izan dira gailetei zaporea emateko, baina baita lorezaintzan ere, ongarri gisa. Era berean, onddoak hazteko ere baliatu izan dira kafe-hondarrak. Hemen azalduko dugu hartzitutako hainbat produktutarako nola erabili, hala

nola kombucha edota kafe-hondarren saltsa hartzitua egiteko. Kafe-hondarrekin egindako kombucharen kasuan, iragazi ostean ere jarrai daitezke erabiltzen, edozer prestakini zaporea emateko, baina baita onddoak hazteko ere (onddoetatik baztertzen den zatia aprobetxatuta ere, aurreragoko fitxetan azalduko dugun moduan).

Errezetak

Kafe-hondarren kombucha

Osagaiak

90 g kafe-hondar
1 l ur
90 g azukre
Kombucha SCOBYa

Materialak

Aho zabaleko pitxerra
Estaltzeko zapia


Metodoa

Egin infusioa kafe-hondarrekin 80 °C-tan 15 minutuz, iragazi, eta erantsi azukrea. Garrantzitsua da likidoa 10-15 ° Brix artean egotea. Hoztu, eta gehitu kombucha ama, 5etik beherako pHarekin. Kafearen garraztasuna dela eta, ez zaio kombucha heldua jarri behar.

Ontzi batean ipini, zapiarekin estalita. Garrantzitsua da nahasketak oxigenoa izatea, baina zapiak intsektuei kanpoan utsiko die.

Giro-temperaturan (20-22 °C) eduki daiteke 7 egunez; denbora beti izango da likidoan lortu nahi dugun azidotasun mailaren araberakoa. Hilabete oso bat utz daiteke azidotzen, eta kombucha-ozpina lortu.

Ontziratu, eta bigarren hartzitze bat ere egin daiteke botilan, kombucha karbonatua lortzeko.



Errezetak

Jateko onddoak kultibatzea kafe-hondarrekin

Osagaiak

400 g kafe-hondar
50 g onddo-bazterkin, mizelioarekin (txanpinoiak edota belarri landuak –*Pleurotus ostreatus*–)

1 kg lasto

Materialak

Beirazko bi ontzi
Estaltzeko zapiak
Elikagaietarako poltsa gardena

Metodoa

Mizeliodun onddoen bazterkinak esaten dugunean, kultiboko onddoen zuztarrean ageri den zatiaz ari gara; mizelio zuria izaten dute, eta batzuek kultiboko substratua erantsita ere bai. Zati hori moztu, eta alkoholaz desinfektatutako toki batean gordeko dugu.

Kafe-hondarrak pasteurizatuko ditugu, lurrun-labe batean 30 minutuz.

Beirazko ontziak alkoholarekin desinfektatuko ditugu, eta kafe-hondarrak ipiniko (pasteurizatu eta hozten utzi eta gero), harik eta ontziaren 1/5 estali arte. Kafearen gainean onddoen zuztarrak ipiniko ditugu, mizelioa beherantz dutela.

Inkubatzeko ditugu 25 °C-tan zortzi egunez, ontziaren lepoa zapiarekin estalita, barruan oxigenoa egon dadin, baina intsektuak kanpoan gera daitezten. Zortzigarren egunean kafe-hondarrek mizelio zuri batekin estalita egon beharko lukete. Ontziaren 4/5 berriro ere kafe-hondarrez beteko dugu, eta 25 °C-tan inkubatzeko ditugu beste zortzi egunez. Denbora hori igaro ostean, kafe-hondarrek mizeliaz estalita egon beharko lukete erabat. Atera ontzitik sardexka baten laguntzaz, eta hautsi 3x3 cm inguruko zati irregularretan.

Ebaki lastoa zati irregularretan, pasteurizatu 100 °C-tan lurrun-labe batean 30 minutuz, eta hozten utzi.

Poltsa garden batean, lasto-geruza bat ipiniko dugu, eta mizeliodun kafe-hondarren zatiekin tartekatzen joango gara, harik eta plastikozko poltsa bete arte. Itxi poltsa, eta egin bi zulo zeharka, mizelioa oxigenatzeko.

Utzi hamabost egunez % 80ko hezetasuna duen ingurune batean; denbora hori igarotakoan, karpoforoak eratzen hasita egon beharko luke (arazorik gabe kontsumi daitezke horiek).

Mizelio horrek badu beste erabilera bat ere. Poltsan geratutako lasto-hondarrak mizelioa eta kafe-hondarrak saldei zaporea emateko balia daitezke. Kontuan hartu behar da, azken batean, hauxe baino ez direla: belar lehorra (sukaldaritza nordikoan izugarri erabiltzen den osagaia), onddoen mizelioa (onddo-zapora handia) eta kafe-zapora (kafe-hondarrek emana).

Bibliografía

1. Katz, Sandor. The Art of Fermentation. Chelsea Green Publishing, 2012.
2. Byers, Branden. The Everyday Fermentation Handbook, Adams Media, 2014.
3. Johnson, Arielle y Williams, Lars. The Fermentation Handbook, 2014.
4. <https://www.growmushroomsoncoffee.com/>
5. How To Grow Oyster Mushrooms From Used Coffee Grounds Cheap And Easy, 2013. <https://www.youtube.com/watch?v=HnLt0Xkm-Hs>



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

